

**2008ko OTSAILAREN 7an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko otsailaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
 - **2008ko urtarrilaren 17an ospatutako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **B. XX-ezk. Etxebizitzeko terrazaren handitzea burutzeko obrak egiteko baimena ematea, hala badagokio.**
4. **Manuel Larramendi Kultur bazkuneari 2008 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala badagokio.**
5. **Hirigintza kontsulta: Lur ez urbanizagarrian txabola bat eraikitzeo. O. O. R..**
6. **Erniozale Kultur Elkarreak eginiko eskaeraren onespena, hala bada.**
7. **Fakturak eta ordainketak.**
8. **Beste batzuk.**
9. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

**LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA
BADAGAKIO.**

- ▣ 2008 urteko urtarrilaren 17an Ohiko Udaltzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udaltzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

01/2008 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 31koa, 2007ko 4. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
B. XX-ezk. ETXEBIZITZAKO TERRAZAREN HANDITZEA BURUTZEKO OBRAK EGITEKO BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik G. U. jaunak hainbat dokumentazio ekarri behar duela, B. XX-ezk. etxebizitzako terrazaren handitzeko egin dituen obrak legeztatzeko.

Gaia azterturik, Udaltza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Gaia mahai gainean uztea, G. U. jaunak ekarri beharreko dokumentazioa ekarri bitartean.

LAUGARREN PUNTUA
MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2008 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2008 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurkeztu duen “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoaren aurrekontua, non Larraulgo Udalarri dagokion ekarpena 2.455,00 eurotako den eta % 60-aren ordainketa eskatzen den.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- “Beterri-Aiztondo gerora bidean” 2008 ekitaldirako aurkezturiko aurrekontua onartzea 2.455,00 eurotako kopuruan eta % 60-aren ordainketa burutzea, hau da 1.473,00 euro.

BIGARRENA.- 2008ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

BOSGARREN PUNTOA

HIRIGINTZA KONTSULTA: LUR EZ URBANIZAGARRIAN TXABOLA BAT ERAIKITZEKO. O. O. R.

Ikusirik O. O. R. andreak eginiko hirigintza kontsulta, non eskatzen duen lur ez urbanizagarrian txabola bat eraikitzekeo dituen aukerei buruzko informazioa.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. andreak 2008ko urtarrilaren 29an eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO LUR EZ URBANIZAGARRIAN TXABOLA BAT ERAIKITZEKO ESKARIARI BURUZKO INFORMAZIO TEKNIKOA

O. O. R. andreak egindako eskaria ikusirik, non Larraulgo lur ez hiritargarrian 50m²-ko txabola bat egiteko informazio urbanistikoa eskatzen duen, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Udaletxean utzitako eskarian ez da agertzen ez lurren azalera ezta txabolaren erabilera, bi datu hauek garrantzitsuak izanik.

Larraulgo 9º artikulua landa erabilerak deskribatzen ditu.

Art 9. 5.- Usos rurales

- Se consideran como tales todas aquellas actividades cuyo fin prioritario es la explotación de los recursos primarios del territorio. Se establecen las siguientes modalidades:

- Uso de explotación agraria

- Uso forestal

** Los usos de explotación agraria comprenden los usos agrícolas, cultivo y producción de todo tipo de vegetales con excepción de la explotación forestal, y los usos ganaderos y de producción animal, actividades relacionadas con la crianza y cuidado de todo tipo de animales, que deban implantarse necesariamente en el medio rural.*

Se incluyen las casas constituidas por una vivienda unifamiliar o bifamiliar ligadas a explotación agropecuaria para residencia de agricultor, estrictamente ligadas a la explotación directa y previa demostración de su necesidad, o alternativamente, el de residencia colectiva; el agroturismo, la guarda de vehículos y maquinaria adscrita a la explotación; el almacenamiento de los productos de la misma y su venta directa en origen.

Asimismo, se consideraran como usos auxiliares, las industrias agrarias vinculadas a la explotación, como la transformación en origen de los productos de la misma en aquellos casos en que ésta se justifique por notorias economías en el proceso de producción, y, se garantiza dicha dependencia con carácter predominante; los viveros

de flores y plantas en los que la plantación no se realice sobre el terreno; y, las industrias agrarias de todo tipo, hasta una superficie de techo máxima de 2.000 m²(t), así como las Unidades agrícolas especializadas –invernadero- que son instalaciones permanentes, accesibles y con cerramiento para el forzado o protección de cultivos, en las que se pueden desarrollar todas o algunas de las fases del ciclo de los cultivos. Se admiten construcciones en los términos equivalentes para el uso agrícola.

* Los usos de explotación agraria no profesionalizados, entre los cuales se incluirán las explotaciones agrarias que no reúnan los requisitos de viabilidad y autonomía productivas exigidos para ser considerados como usos de explotación agraria comunes. Como uso auxiliar se considerará exclusivamente la guarda de aperos de labranza adscritos a la explotación.

- Abeltzaintza eta nekazaritzarekin lotura duten eraikinek, ez-profesionalizatuak diren landa erabilerak ezik, udal baimena eman aurretik, Nekazaritza Saileko ikuspegi ona jaso behar dute .

Eraikinari eman behar zaion erabileraren arabera ere, partzelak azalera minimo bat izan behar du.

Artículo 54.- Parcelas mínimas de uso.

La parcela mínima en función exclusivamente de su uso será de:

- . 20.000 m² (2 Has) para explotaciones agrarias comunes.
- . 20.000 m² (2 Has) para edificios e instalaciones de interés público y social.
- .10.000 m² (1 Ha) para edificios residenciales autónomos en construcciones ya existentes.
- . 5.000 m² para granjas y explotaciones ganaderas intensivas
- . 5.000 m² para industrias agrarias no vinculadas a la explotación del territorio (serrerías, viveros)
- . 2.500 m² para unidades agrícolas especializadas (invernaderos)
- . 2.500 m² para usos agrarios no profesionalizados (huertas)
- Erabilerara bakoitzeko eraikinek baldintza bereziak izango dituzte 58,70,71,eta 72 artikuluen arabera.

Artículo 58.- Implantación de construcciones móviles o prefabricadas.

La implantación estable de construcciones prefabricadas, fijas o móviles, caravanas, o cualquier otro elemento susceptible de ser utilizado como habitación, alejamiento o lugar de esparcimiento será considerada a todos los efectos como una nueva edificación y les serán de aplicación la totalidad de las condiciones exigidas para este tipo de construcciones, pudiendo el

Ayuntamiento de Larraul exigir la retirada de todo este tipo de construcciones cuyo uso no esté justificada.

Artículo 70.- Granjas y explotaciones ganaderas intensivas.

La construcción de edificios para granjas y explotaciones ganaderas, quedará sujeta al cumplimiento de las siguientes condiciones:

- a) Parcela mínima: 5.000 m², en una única finca continua

b) La ocupación máxima será de 1.500 m² en los casos de cooperativas y agrupaciones de más de un ganadero. En caso de una única persona la ocupación máxima será de 1.000 m² en planta.

c) Condiciones de parcela. La parcela sobre la que se pretende edificar deberá dar frente a alguno de los caminos principales existentes en una longitud mínima de 30 metros, siempre y cuando no se trate de granjas anejas a las explotaciones agrarias.

d) Separaciones:

-. 250 mts. del área urbana, salvo que el Reglamento de Actividades Molestas, Nocivas, Insalubres o Peligrosas exigiese una distancia mayor.

-. No menos de 100 mts. de cualquier vivienda rural ajena a la propia granja -. 8 mts como mínimo al lindero de la propia parcela.

En el caso de las explotaciones existentes, éstas tendrán derecho a las ampliaciones previstas en el lugar donde se ubiquen, aunque no respeten alguna de las distancias antes mencionadas siempre que éstas nunca disminuyan, y siempre que no se encuentren fuera de ordenación.

e) Perfil: Planta baja + Bajo cubierta.

f) altura de edificación: 7 mts.

g) Materiales y tratamiento del entorno. Se respetará lo que establece el artículo 48 y 49 de la Normativa General aplicable en Suelo No Urbanizable.

h) Depuración. Será preceptiva la instalación de depuración de aguas residuales y fecales que deberá ser recogida en el proyecto de construcción de nuevas granjas, así como su implantación en las ya existentes con anterioridad a la redacción de estas Normas .

i) Instalaciones y construcciones anejas. Podrán construirse silos, depósitos, etc. que deberán reflejarse en los proyectos de edificación y respetarán, en lo referente a los materiales, lo que dispone el artículo 48 de las ordenanzas.

Artículo 71.- Unidades agrícolas especializadas.

Se consideraran como tales las explotaciones agrícolas dedicadas de forma exclusiva a cultivos especializados como la producción hortícola forzada con invernaderos.

Las unidades agrícolas especializadas podrán formar parte de un caserío o establecerse con independencia del mismo.

a) Parcela mínima: 2.500 m² cuando se implanten de forma independiente

b) Separaciones.

-. Límite de la parcela: 5 mts.

-. Edificaciones no rurales en otras fincas: 20 mts.

c) La construcción del invernadero se hará de forma provisional de modo que si cesa la el uso de dichas instalaciones se procederá a su desmantelamiento Larraulgo Arau subsidiarioen 72^a artikulua dioenez, eskarian azaltzen diren lurrek 2.500m² baino gehiago izango balute, 20m² ko txabola bat egiteko baimena ematea posible izango litzateke eta honek 48^a artikulua markatzen dituen baldintzak bete beharko litzuzke:

Artículo 72.- Usos agrarios no profesionalizados

Reciben la denominación de usos agrarios no profesionalizados aquellas explotaciones agrarias que no reúnen los requisitos de viabilidad y autonomía

productivas exigidos para ser consideradas como usos de explotación agraria común. Deberán cumplir las siguientes exigencias:

a) Su implantación no exigirá la emisión del informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Parcela mínima. La parcela o huerta labrada y trabajada de forma permanente que contenga una txabola tendrá una superficie mínima de 2.500 m².

c) Condiciones de edificación: se autoriza la construcción de una txabola por parcela destinada a la guarda de aperos.

Asimismo se permite la construcción de cubriciones para protección del ganado, siempre que sean abiertas por sus laterales.

d) Superficie máxima construida: 20 m² para las txabolas destinadas a la guarda de aperos.

e) Condiciones de la licencia. La licencia municipal se concederá siempre en precario. En caso de que un mismo titular trabajara dos o más parcelas situadas en el mismo entorno, solamente se autorizará la construcción de una txabola o caseta.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-. Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-. Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-. Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

-. las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.

50m² ko txabola bat egiteko asmoa dagoela ikusirik, esan behar da, Nekazaritza saileko onespena jaso arte ezingo litzateke udal baimenaren tramitearekin hasi.

Diputazioko baiezkoa jaso ondoren, beharrezkoa izango da bisatutako Exekuzio Proiektua udaletxean aurkeztea eraikitzeke baimena lortzeko.

Erabilera ez-profesional baten barruan aurkitzen bagara eta partzelak 2.500m² ko azalera baino gehiago izango balu, 20m² ko txabola bat egiteko aukera izango litzateke bakarrik. Udal baimena martxan jartzeko, txabola honen ezaugarriak deskribatzen dituen memoria, marrazki eta aurrekontua aurkeztu beharko litzateke udaletxean.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- O. O. andreak eginiko hirigintza kontsultari erantzuna ematea, Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. andreak eginiko txostenean jasotakoa kontutan harturik.

BIGARRENGOA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ERNIOZALE KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Erniozale Kultur Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten Zortzi Herrien arteko ibilaldia antolatu behar dutela datorren maiatzaren 11an. Horretarako ibilbideak txukundu eta margotzea beharrezkoa egiten da. Era berean mapa erreliebe bat argitaratu nahi da eta ibilaldi egunean partaideei ematea erabaki dute.

Goian aipaturikoa gauzatu ahal izateko, Larraulgo Udalari 1.000,-eurotako diru-laguntza eskaera egiten diote Erniozale Kultur Elkarteak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari 1.000,00.-eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari jakinarazi, diru-ordainketa egin aurretik Larraulgo Udalean aurkeztu beharko duela dituzten gastuen aurrekontua.

HIRUGARREA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari proposatu, hurrengo urteetan, ibilaldia antolatzeko Udal desberdinei eskatzen zaien diru-laguntza Udal bakoitzak duen aurrekontua kontutan izanik egitea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ETOR OSTOA	60,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	5.702,78
ULAHI	741,05
TELEFONICA	19,01
TELEFONICA	16,21
KIROLZER	8,65

IZFE	1.621,63
KOPIDIN S.L.	64,22
FERRETERIA BARBE	21,95
ARGITU ASESORES	311,11
IBERDROLA	143,18
LAVANDERIA LIZARRA S.L.	153,41
TOLOSABIT	20,30
TOLOSABIT	174,00

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **9.057,5** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.

- *Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespen eskaeraren onespena, hala bada*

Ikusirik J. G. A. I. jaunak aurkezturiko eskaera, non Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespen eskaera egiten duen, martxoaren 5eko, 2/2004 Errege Dekretu Legegilearen 93.1.e) artikuluan arautzen dena kontuan hartuaz. Horretarako A. jaunak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuko ziurtagiria aurkezten du, non bere minusbaliotasun maiala zehazten den.

Ikusirik A. jaunak aurkeztu dituela Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena eskatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J. G. A. I. jaunak eskaturiko Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, A. jaunari ematea.

- ***Aiztondo Klasika batzordeari egin beharreko ekarpena onartzea, hala badagokio.***

Ikusirik 2008ko urtarrilaren 31an Aiztondo Klasikako Batzordeak V. Aiztondo Klasikoaren aurrekontua bidali duela guztira 25.000 eurotako dena. Larraulgo Udalari 799,98 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 799,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2008 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

- **Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateari ekarpenaren onspena.**

Ikusirik Aiztondo zerbitzuen Mankomunitatearen izenean Larraulgo Udalak eginiko diru-laguntza eskaera, Gipuzkoako udalek sustatutako haur, nerabe eta gazteentzako jarduerak aurrera eramateko.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Larraulgo Udalari 1.478,00 eurotako diru-laguntza eman diola goian aipaturiko jarduerak aurrera eramateko. Jarduera hauek Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateak aurrera eraman behar dituelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak emandako 1.478,00,-eurotako diru-laguntzaren ekarpena egitea, Gipuzkoako udalek sustatutako haur, nerabe eta gazteentzako jarduerak aurrera eramateko.

- **ARGIA Komunikazio Biziagoa S.A.L. ek eginiko 2008rako publizitate proposamena**

Ikusirik ARGIA komunikazio Biziagoa S.A.L. ek eginiko 2008rako publizitate proposamena, non Euskal Kulturaren urtekarian modulu bat jartzeko proposamena egiten duen bere zenbateko 120,00.-euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: ARGIA Komunikazio Biziagoa S.A.L. ek eginiko 2008 urterako publizitate proposamena ez onartzea.

- ***Ur horniduari buruzko proposamena***

Ikusirik Larraulgo Udalak ur hornidurarekin dituen arazoak, hau da, ur hodietan izan dituen arazoak direla eta bidean ur asko galtzen dela. Alkate jaunak batzarkideei proposatzen dielarik, Joxe Amonarriz iturginarekin egongo dela, 4 kontadore berri, erreguladoreak eta beharrezkoak diren konponketa lanak egin dezan. Horretarako aurrekontu bat eskatuko diolarik. Ur hornidura zerbitzua hobeto ibili dadin.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkate jaunak eginiko proposamena onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA